

Azaroaren 4an
URTEAN ZEHARREKO 31. IGANDEA

Agurra

Biziaren Jainkoa izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Liturgi-urtearen azken txanpan gaude. Hil honen azken igandean Jainkoaren Erreinua gure artean dela ospatuko dugun bezala, gaur Erreinu horren ezaugarri nagusiei begira jartzen gara. Eukaristia, eta bereziki Igandeko Eukaristia ospatzean Jaunaren Heriotza-Piztuera oroitu-berritu-ospatu egiten dugu: horrek esan nahi du, beste biziera bat posible dela, Jainkoaren estilora bizitzeko aukera egin dezakegula, maitasunean oinarritutako Jainkoaren Erreinua dagoeneko “gure artean” dela.

Damu-otoitza

Senideok: aitor dezagun apalki bekatari garela:

—Jesus Jauna, zu zara gure bidea. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zu zara gure egia. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zu zara gure bizia. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun errukitsua,
zure graziari esker,
ongi zerbitzatzen zaituzte fededunek;
egizu, arren, Zuk agindutako ondasunetara
eragozpenik gabe joan gaitezela.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Lege zaharreko agindua: “Maitatu Jainkoa”, betetzera eta osatzera dator Jesus. Elkarrenganako maitasuna eta Jainkoarekiko harreman sendoa aparte bizi ezin diren bi errealitate dira: beharrezkoak, osagarriak eta kristau-bizitzaren oinarri, biak, dudarik gabe.

Lehenengo irakurgaia (*Dt 6, 2-6*)

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitzegin zion herriari: «Izan beldur Jaunari, zure Jaungoikoari, zuk eta zure seme-alabek eta zure seme-alaben seme-alabek; eta gorde ematen dizkizudan agindu eta arau guztiak, zure bizitzako egun guztietan, luzaro bizi zaitezten.

Entzun, beraz, Israel, eta bete Jaunaren aginduak, zorioneko izan zaitezten eta ugaritu, esnea eta eztia darion lurrean, Jaunak, zuen arbasoen Jaungoikoak, agindu zizun bezala.

Entzun, Israel: Jauna, gure Jaungoikoa, bakarra da. Maita ezazu Jauna, zure Jaungoikoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, zure indar guztiz. Eduki zure bihotzaren muinean, Nik gaur esaten dizkizudan hitz hauek».

Erantzun-salmoa (*Sal 17, 2-4. 47 eta 51ab*)





Maite zaitut, Jauna, nire indar,
 Jauna, nire harkaitz, gaztelu eta salbatzaile.
 Zugana biltzen naiz, harkaitz zaitudan Jainko,
 nire babes, salbamen-indar, nire gordeleku.R/.

Gora Jauna! Bedeinkatua nire Harkaitza!
 Jaso bezate gorespenez Jainkoa, nire Salbatzailea!
 Garaipen handiak eman baitizkio bere erregeari,
 eta maitasuna agertu bere Gantzutuari. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 7, 23-28*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Asko izan ziren lehengo elkargoko apaizak, bata bestearen ondotik; heriotzak galarazten baitzien beren eginkizunean irautea. Jesusek, ordea, beti irauten duelako, betirako apaizgoa dauka.

Horregatik, Jesusek betiko salba ditzake Jaungoikoarengana Haren bitartez hurbiltzen direnak, beti bizi baita gure alde otoitz egiteko.

Horrelako apaiz nagusia behar genuen guk: santua, errugabea, akatsik gabea, bekatarietatik berezia eta zeruak baino gorago jasoa. Hark ez du egunean-egunean opariak eskaini beharrik, beste apaizek egiten duten bezala, lehenik beren bekatuengatik eta gero herriarengatik. Hori, behin betiko egin zuen, bere burua eskainiz.

Benetan, Legeak gizon argalak egiten ditu apaiz; Legearen ondorengo zin-hitzak, ordea, Semea egin du apaiz nagusi, betirako bikaina.

Aleluia (*Jn 14, 23b*)



Nik maite nauenak, beteko du nire hitza
 –dio Jaunak–;
 nire Aitak maiteko du,
 eta harengana etorriko gara. R/.

Ebanjelioa (Mk 12, 28b-34)

Homiliarako argibideak

Maitasuna bakarra da

Maitasunaz mintzo garenean –eta askotan mintzo gara–, esango genuke maitasun-mota asko daudela: senar-emazteena, platonikoa, sexuala, karitatezkoa, adiskidetasunezkoa... Eta horien arteko diferentziak aipatu eta ikustaraztera jotzen da askotan. Eta, segun zeinentzat, maitasun batzuk «onak» izango lirateke eta beste batzuk «gaiztoak»; «bekatuzkoak» ere bai.

Maitasuna bizitzeko era desberdinak direla ez dago ukatzerik. Baina hori bezainbat ukaezina da maitasuna bakarra dela. Maitasun bakar horrek bide desberdinak egingo ditu, baina, maitasuna den bitartean, maitasun bakar eta beraz ari gara.

Begiratu beharko da, maitasuna esaten dugunean, zer ari garen esaten. Hainbeste kantutan kantatzen den «maitasuna» maitasuna ote den edo beste zerbait. Edo ez ote ditugun geure interes asko gordetzen eta erabiltzen maitasun hitzaren babesean. Egoismo eta intereskeria asko ez ote den maitasuntzat hartu eta bizitzen.

Eta, jakina!, egoismoa ez da maitasuna, intereskeria maitasuna ez den bezalaxe. Ez Jainkoari dagozkion harremanetan, ez lagun hurkoari dagozkionetan. Bietan erabil baitaiteke oker maitasun hitza.

Jainkoarekiko harremana, erlijio-harremana, zenbat aldiz ez dugu erabili izan gure irudia babesteko. Zenbat aldiz Jainkoaren eta erlijioaren izenean, sarraski izugarriak burutu izan diren! «Jainkoak bedeinka dezala Amerika» eta egurra ematen hasi berehala. Hori ikusi dugu eta, zoritxarrez, ikusiko dugu.

Lagun hurkoarekiko harremanetan ere ez da intereskeriarik falta askotan. Beste pertsona nire atsegina lortzeko erabiltzen dudanean, edo nire maitasun-egintzak neure kontzientzia txarra garbitzeko erabiltzen ditudanean, edo maitasun hitza ahoa betean erabili eta pobreak alde batera uzten ditudanean, horietan denetan intereskeria itsua erabiltzen ari gara.

Baina, egoismoa eta intereskeria beti nahastuko dira gure maitasun-bizitzan, ala? Bai, noski. Inork ez dugu maitasuna bere garbienean eta ederrenean bizi. Baina kontua ez da orain garbikerietan jardutea. Kontua da, maitasun-bidea nondik nora ari garen egiten, zein den gure maitasun-prozesua.

Izan ere, maitatzen ere ikasi egiten da, maitasuna ere hezi egin behar da. Eta heziera hori eragitea da inportantea. Umetatik hasita, nerabazarotik pasaz, gazte-esperientziak biziz, heldutasunera bidean, maitasunaren bizikizunak pauso asko ematen ditu.

Intereskeria eta frustrazio askoren bidez ikasten da maitasuna garbitzen eta maitasunari, urrats bakoitzean, helburu berriak jartzen.

Baina, bide horretan eta orain fededun bezala planteatuz, Jainkoarekiko maitasuna eta lagun hurkoarekikoa elkarren irizpide eta neurri bihurtzen dira. Jainkoaren maitasunak lagun hurkoa maitatzera eramaten nau eta lagun hurkoaren maitasuna

Jainkoarekiko harremanetik edaten dut.

Eta puntu honetan, askotan egin izan ditugun zatiketak ezabatu beharra daukagu. Jainkoa asko maite dugula esan, mezetara joan eta otoitz egiten dugulako edo moral-bide jakin batzuk gordetzen ditugulako, eta ustezko maitasun hori gizarteko pobreen ardura bihurtzen ez bada, maitasun hori ez da Jesusek eskatzen duena.

Jesusek eskatzen duen Jainkoarekiko maitasuna erabatekoa da, «bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, adimen osoz eta indar guztiaz» bizitzen dena. Ikus dezakegu, beraz, Jainkoari omen diogun maitasunak zenbateko egia daraman bere barnean. Askotan eliz barruko hitz hutsa besterik ez da izaten. Beste batzuetan, berriz, pertsonaren osotasuna eta edertasun betea erakusten du.

Pertsona Jainkoaren maitasunak hartzen duenean, berehala antzematen zaio, ez ordea elizako otoitzean bakarrik; handik irtendakoan baizik, pobreen arduran, behartsuekiko hurbiltasunean, eta zerbitzu apalean. Jainkoaren maitasunak lagun hurko behartsuen bidera eramaten du, han bere maitasun ederrena bizitzeko.

Hori gutxik egiten dutela? Zuretzat eta niretzat hor dago aukera. Jainkoaren dohainak maitale izateko erregalua egin digu, eta hori onartu eta maitasuna era betean bizitzea da kontua.

Orduan garbi ikusten da, maitasuna bakarra dela.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta eman diezagula behar dugun laguntza:

—Jainkoak isur dezala Elizarengan apaltasun eta sendotasun espiritua eta sorrarazi ditzala Ebanjelioaren zerbitzari leial izango diren era guztietako bokaziodunak. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak ernaraz dezala agintariengan on egiteko borondatea eta hauek erraz dezatela guztiontzat ongizatezko eta justiziazko bizimodua. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak lagun diezagula guztioi gure zailtasun eta ezinetan, eta eman diezaiela hiltzorian daudenei bakea eta atsedena. Egigun otoitz. R/.

—Jainkoak sendo gaitzala fedean eta eman diezagula guztioi beti on egiteko laguntza. Eska diezaiogun Jaunari.

Gure Jainko eta gure Aita, emaguzu Zure grazia, oso-osorik zerbitza zaitzagun eta Berri Ona dugun Zure Semea izan dadin beti gure bizitzaren erdigune eta salbamen-bide. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Gero eta gehiago agertu bedi guban, Jauna, zure indarra;
hartu ditugun sakramentuez sendoturik,
beroiek agintzen dizkiguten ondasunak lortzeko
zure graziak gai egin gaitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**